

Juan Kruz Igerabide. *Begi-niniaren poemak. Erein*

Animalia ttikiak

Kilkerrarena

Etorri da aurten ere
kilkerra nire etxe ondora;
ez dut lorik egin bart:
Pixa egingo diot zulora.

Bipiarena

Bipia zerran aritu da
gau osoan:
Zerrauts apur bat dago
ohe ondoan.

Igelak

Goiz honetan behelainoa dabil
erreka miatzen,
gau osoan aritu baitira igelak
lainoen kontra mintzatzen.

Marraskiloak

Arratsaldean, haurrak saltoka belazean:
Ilunabarrean marraskiloak
etxeak konpontzen bide ertzean.

Tximeletak

Belardian loreak altxa dira airera
zurekin dantzan ibiltzera.
Ez dira, ez, loreak:
Tximeletak datozkizu aldera.

*Egitura erraz eta erabilgarria da oso, animalia berriekin poematxoak sortzeko.

*Aipatu dugun liburuaren lehenengo atalari begiratu eta animalia askoren adibidea hartzeko aukera dago, animalia horiek marraztu, animalia berriak irudikatzen, errezitaldiak osatzeko, eta, besterik gabe, entzuteko irakasle edota gurasoen ahotsa hitz polit hauek behin eta berriz errepikatzen.